

Honakoentzat:
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko
Hezkuntzako sailburua

A la atención de:
Ilma. Sra. Consejera de Educación
Departamento de Educación
Gobierno Vasco

GAIA: In situ sukalde-azpiegiturarako eta eskola-jantokia zuzenean kudeatzeko eredu baterako trantsiziorako aurrekontu-zuzkiduraren eskaera.

Abendaño Ikastolako Familia Elkartearen Batzar Nagusiak 2025eko azaroaren 10ean egindako ohiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

«EAEko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legeak esplizituki indartzen du eskola-jantokiko zerbitzuaren izaera pedagogikoa. 37. artikuluan honako hau adierazten du: «Ikastetxeko hezkuntza-proiektuan sartuta dauden eskola-jantokiek indartu egingo dute **euren eginkizun pedagogikoa**, eta eskola publikoaren plan estrategikoaren parte izango dira». Era berean, 97. artikulua honako hau xedatzen du: «Ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektuek elikadura osasungarri eta jasangarriaren balioak integratuko dituzte (...) **Eskola-jantokiak hezkuntza-proiektuaren parte izango dira** (...) Jangelako langileek elikadurarekin eta ohitura osasungarriekin lotutako hezkuntza-proiektuen zati bat garatuko dute».

Eskola-jantokiak arautzen dituen Hezkuntzako sailburuaren 2024ko irailaren 9ko Aginduaren 1. artikulua honako hau ezartzen du: «Agindu honen **xedea da arautzea** Euskal Autonomia Erkidegoko derrigorrezko hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako (lehen zikloko hirugarren maila eta bigarren zikloa) ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetan dauden eskola-jantokiak **irekitzeko, funtzionatzeko** eta, hala badagokio, finantzatzeko baldintzak, baita jantoki-zerbitzua emateko modua ere».

ASUNTO: Solicitud de dotación presupuestaria para infraestructura de cocina in situ y transición a un modelo de gestión directa del comedor escolar.

Reunida la Asamblea General de la Asociación de Familias de Abendaño, en sesión ordinaria celebrada en fecha 10 de noviembre de 2025, se adoptó el siguiente acuerdo:

«La Ley 17/2023, de 21 de diciembre, de Educación de la CAPV refuerza de forma explícita el carácter pedagógico del servicio de comedor escolar. En su artículo 37 señala que «los comedores escolares, integrados en el proyecto educativo del centro, reforzarán su papel pedagógico y formarán parte del plan estratégico de la escuela pública». A su vez, el artículo 97 dispone que «los proyectos educativos de cada centro integrarán los valores de una alimentación saludable y sostenible (...) Los **comedores escolares formarán parte del proyecto educativo** (...) El **personal del comedor desarrollará una parte de los proyectos educativos** relacionados con la alimentación y los hábitos saludables».

El artículo 1 de la Orden de 9 de septiembre de 2024, de la Consejera de Educación, por la que se regulan los comedores escolares, establece: «Es objeto de la presente Orden **regular los términos de la prestación del servicio de comedor escolar**, así como las **condiciones para la apertura, funcionamiento** y, en su caso, financiación de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco en los niveles de enseñanza obligatorios y

Araudi horretatik ondorioztatzen da eskola-jantokia, zerbitzu publikoa den aldetik, funtzionamendu-, finantzaketa- eta kontrol-baldintza zorrotzen mende geratzen dela eta horren erantzukizun zuzena Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari dagokiola, administrazio eskuduna den aldetik. Hala, Hezkuntza Sailaren erantzukizuna da lege-aurreikuspen horiek betetzeko behar diren neurriak hartzea, eskola-jantokia ikastetxeko bizitza pedagogikoan erabat txertatuta egotea eskatzen baitute.

Hala ere, kanpoko catering-enpresei esleitutako sukaldaritza zentralizatuko sistemaren egungo esparruan, eskola-jantokia, praktikan, errazioen harrera eta banaketa zerbitzu logistikora mugatzen da, eta indargabetuta geratzen da indarrean dagoen araudiak ikastetxearen proiektu pedagogikoaren parte gisa esleitzen dion hezkuntza dimentsioa.

Ereduaren egiturazko eskasia agerikoa da begiraleei buruzko baldintzak aztertzean. Begirale/ikasle ratioa Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen zirkularrean arautzen da, eskola-jantokiek 2021-2022 ikasturtetik aurrera izango duten funtzionamenduari dagokionez:

2 URTEKOEN GELA		HAUR H.		LEHEN H.		DBH	
Zenbat jankide	Zenbat begirale	Zenbat jankide	Zenbat begirale	Zenbat jankide	Zenbat begirale	Zenbat jankide	Zenbat begirale
6-9	1	8-15	1	16-37	1	21-45	1
10-18	2	16-30	2	38-74	2	46-85	2
19-27	3	31-46	3	75-104	3	86-125	3
28-36	4	47-65	4	105-134	4	126-165	4
37-45	5	66-82	5	135-164	5	166-205	5
46-54	6	83-97	6	165-194	6	206-245	6
55-63	7	98-112	7	195-224	7	246-285	7
64-72	8	113-127	8	225-254	8	286-325	8
73-81	9	128-142	9	255-284	9	326-365	9
82-90	10	143-157	10	285-314	10	366-405	10
91-99	11	158-172	11	315-344	11	406-445	11
100-108	12	173-187	12	345-374	12	446-485	12
109-117	13	188-202	13	375-404	13	486-525	13

Honako hauek dira zifrak:

Educación Infantil (tercer curso del primer ciclo y segundo ciclo)».

De esta regulación se infiere que el comedor escolar, en tanto servicio público, queda sujeto a condiciones estrictas de funcionamiento, financiación y control, cuya **responsabilidad directa corresponde al Departamento de Educación del Gobierno Vasco** como Administración competente. Así, es responsabilidad del Departamento de Educación adoptar las medidas necesarias para el cumplimiento de estas previsiones legales, que exigen que el comedor escolar esté plenamente inserto en la vida pedagógica del centro.

Sin embargo, en el marco actual del sistema de cocina centralizada adjudicado a empresas de catering externas, el comedor escolar se reduce en la práctica a un servicio meramente logístico de recepción y reparto de raciones, **quedando anulada la dimensión educativa que la normativa vigente le atribuye como parte integrante del proyecto pedagógico del centro.**

La insuficiencia estructural del modelo se hace evidente al analizar las condiciones relativas al personal monitor. La determinación de la ratio de monitorado / alumnado se regula en la Circular de la Viceconsejera de Administración y Servicios en relación al funcionamiento de los comedores escolares a partir del curso escolar 2021-2022:

AULA DE 2 AÑOS		INFANTIL		PRIMARIA		ESO	
nº comensales	nº monitores	nº comensales	nº monitores	nº comensales	nº monitores	nº comensales	nº monitores
6-9	1	8-15	1	16-37	1	21-45	1
10-18	2	16-30	2	38-74	2	46-85	2
19-27	3	31-46	3	75-104	3	86-125	3
28-36	4	47-65	4	105-134	4	126-165	4
37-45	5	66-82	5	135-164	5	166-205	5
46-54	6	83-97	6	165-194	6	206-245	6
55-63	7	98-112	7	195-224	7	246-285	7
64-72	8	113-127	8	225-254	8	286-325	8
73-81	9	128-142	9	255-284	9	326-365	9
82-90	10	143-157	10	285-314	10	366-405	10
91-99	11	158-172	11	315-344	11	406-445	11
100-108	12	173-187	12	345-374	12	446-485	12
109-117	13	188-202	13	375-404	13	486-525	13

Estas son las cifras:

- 2 urtetik beherakoak: pertsona bakar bat 9 haurrekin.
- 3-5 urteko adingabeak: pertsona bakar bat 15 haurrekin.
- 6 eta 11 urte bitarteko adingabeak: pertsona bakar bat 37 haurrekin.

Zifra horiek, berez minimoak direnak, larriagotu egiten dira kontuan hartzen badugu ratioa kalkulatzeko ohiko jankideak baino ez direla kontuan hartzen eta horien kontzeptualizazioa nabarmen aldatu zela 2024an, 2024ko irailaren 9ko Aginduak 13. artikuluan honela definitzen ditu: «Ikasturte osorako jantoki-zerbitzua gutxienez **astean hiru (3) aldiz eskatzen duten** Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak», 2021-2022ko Zirkularraren aurreko definizioaren aldean, zeinak astean **gutxienez egun bat erabiltzen zuten ikasleak** ohikotzat jotzen zituen.

Praktikan aldaketa horrek benetako eragina izan du Gasteizko ikastetxe askotan. Dagoeneko begirale kopurua murriztu egin da, astean behin edo bitan joaten diren jankideak ratioaren kalkulutik kanpo geratu direlako.

Gainera, **jantokiko langileen kualifikazioari buruzko arau-bermerik ez dago**. 2024ko irailaren 9ko Aginduaren 21. artikulua honela definitzen ditu monitorearen eginkizunak:

- *Jantokian ordenari eustea.*
- *Ikasleak artatzea eta zaintzea hala jantokian nola bazkaldu aurreko eta ondorengo atsedendietan.*
- *Janaria zerbitzatzea eta, bazkariak amaitzean, sukaldeko tresneria jaso eta jantokiko altzari zein instalazioak garbitzen laguntzea.*
- **Eskola-jantokiak izaera hezitzailea duenez, ikasleen lankidetzaren sustatzea; Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko lehen mailatik gorako ikasleek **mahaia jartzen eta jasotzen lagunduko dute**, eta DBHko lehen mailatik gorakoek**

- Menores de 2 años, una única persona asiste hasta 9.
- Menores de 3 a 5 años, una única persona asiste hasta 15.
- Menores de 6 a 11 años, una única persona asiste hasta 37.

Estas cifras, ya de por sí ajustadas, son agravadas si tenemos en cuenta que en el cálculo del ratio solo se tienen en cuenta los comensales habituales, cuyo conceptualización ha variado sustancialmente en el año 2024 cuando la Orden de 9 de septiembre de 2024, en su artículo 13, los define como “el alumnado de Educación Infantil, Primaria y Educación Secundaria Obligatoria que solicite el servicio de comedor para todo el curso escolar con una **periodicidad mínima de tres (3) a la semana**”, frente a la definición anterior de la Circular de 2021-2022, que consideraba habitual al alumnado con uso de **al menos un día semanal**.

En la práctica, esta modificación está teniendo un impacto real en numerosos centros escolares de la ciudad de Vitoria- Gasteiz, que han visto reducido el ya raquítico número de monitores/as como consecuencia de la exclusión en el cálculo de la ratio de aquellos comensales que asisten 1 o 2 días a la semana.

A ello se añade **la falta de garantía normativa sobre la cualificación del personal de comedor**. En el artículo 21 de la Orden de 9 de septiembre de 2024, define como funciones del monitor:

- *Velar por el mantenimiento del orden en el comedor.*
- *La atención, vigilancia y cuidado del alumnado en el comedor, y en los periodos de descanso, anterior y posterior a la comida.*
- *Servir la comida a las mesas y recoger a su término el menaje y útiles, colaborando en las labores de limpieza del mobiliario e instalaciones del comedor.*
- *En razón del **carácter educativo del comedor escolar, fomentar la colaboración del alumnado**, a partir del primer año del tercer ciclo de Educación Primaria en las **labores de puesta y recogida del servicio de mesas**, y a partir*

zerbitzatzen eta hezkuntza-maila baxuagoetako ikasleei arreta ematen parte hartuko dute.

- **Ikasleek parte hartzeko programa hauek garatzea:** osasunerako hezkuntza, gizarte ohiturak eta aisialdia.
- Zerbitzua behar bezala emateko beste edozein eginkizun, indarrean dagoen araudiak ezarritakoaren arabera.

Arau horren zehaztugabetasuna areagotu egiten da Hezkuntza Sailak, zerbitzuaren zeharkako kudeaketa administrazio-kontratu baten bidez planifikatzean, preskripzio tekniko partikularren agirian langile horiek «zaintzaile» gisa definitzen dituenean eta zehazki zaintzaileen eginkizun hauek definitzen dituenean:

- *Jantokian* eta atsedendietan ikasleei **arreta** ematea eta hauek **zaintzea**, bazkaldu aurretik eta ondoren.
- *Jantokian* eta, hala badagokio, *ikastetxeko* beste edozein lekutan ordena mantentzen dela **zaintzea** bere lana egiten duen bitartean.
- Otorduak **mahaietan zerbitzatzea** eta amaitzean tresneria eta lanabesak **jasotzea**, jantokiko altzari zein instalazioak garbitzen lagunduz.
- Zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoa den beste edozein eginkizun, indarrean dagoen lan-araudiaren arabera.

Kontratu-dokumentu honetan erabat desagertzen dira eskola-jantokiko zerbitzuko langileen funtzio pedagogikoak. Kontratuan ere ez zaie prestakuntza espezifikorik eskatzen langile horiei eta Hezkuntza Saila ere ez da gabezia horretaz arduratzen; izan ere, baldintza-agiri teknikoan eskatzen du kontratuaren adjudikaziodunak prestakuntza programa espezifikoak ezar ditzala bere langileentzat.

del primer año de la ESO en el servicio de las mesas y en la atención al alumnado de niveles educativos inferiores.

- **Desarrollar los programas de participación del alumnado:** educación para la salud, adquisición de hábitos sociales y tiempo libre.
- *Cualquier otra función necesaria para el correcto desarrollo del servicio, así como las que se le encomienden por la normativa vigente. Asimismo, se atenderá a lo establecido en la Circular de la Viceconsejería de Administración.*

La imprecisión de esta norma es agravada cuando el Departamento de Educación, al planificar la gestión indirecta del servicio a través de un contrato administrativo, en el pliego de prescripciones técnicas particulares, define a este personal como “cuidadores” y, en concreto, define las siguientes funciones del personal cuidador:

- **La atención, vigilancia y cuidado del alumnado en el comedor y en los periodos de descanso, tanto antes como después de la comida.**
- **Velar por el mantenimiento del orden en el comedor y en su caso en cualquier otra dependencia del colegio durante el desarrollo de su trabajo.**
- **Servir las comidas en las mesas y recoger a su término el menaje y útiles, colaborando en las labores de limpieza del mobiliario e instalaciones del comedor.**
- *Cualquier otra función necesaria para el correcto desarrollo del servicio, de acuerdo con la normativa laboral vigente.*

En este documento contractual desaparecen por completo las funciones de carácter pedagógico del personal que asiste el servicio de comedor escolar. Tampoco en el contrato se exige ningún tipo de formación específica a este personal, y tampoco el Departamento de Educación se ocupa de esta carencia cuando, en el pliego técnico, exige que la adjudicataria del contrato establezca programas de formación específicos para su

Programa horiek arlo hauek hartuko dituzte gutxienez:

- *Ikasleen arreta eta zaintza.*
- *Elikagaien higiena eta segurtasuna, bereziki elikadura-alerten sistema, manipulazio-jardunbide egokiak, garbiketa- eta desinfekzio-plana, elikadura osasungarria...*
- *Enpresaren ingurumen-plana, bereziki ikastetxean hondakinak kudeatzekoa.*
- *Hizkuntza-gaitasuna, kontratua gauzatzeko baldintza berezietan zarritakoaren arabera.*
- *Langileen segurtasuna eta osasuna, lanetik eratorritako arriskuak prebenitzeko.*
- *Bere eginkizunekin zerikusia duen beste edozein alderdi.*

Alde batera uzten da hezkuntza-laguntzako, ohitura osasungarrietako edo garapen pedagogikoko edozein prestakuntza espezifiko. Araudiaren eta kontratu-praktikaren arteko desoreka horrek agerian uzten du **zabarkeria larria dagoela Hezkuntza Sailak aplikatu beharreko legeria osorik betetzen dela ziurtatzeko** duen betebeharrean, eta horrek esan nahi du eskola-jantokiko zerbitzuan ez dagoela legeak eskatzen duen kalitate pedagogikorik eta arreta egokirik.

Era berean, Elikagaien Segurtasunari eta Nutrizioari buruzko uztailaren 5eko 17/2011 Legeak 40. artikuluan ezartzen duenez, «**eskola-jantokiek (...) ikasleen nutrizio-beharretara egokitzen diren menuak eskainiko dituzte, hurbileko eta sasoiko elikagaiak** gehituz eta koipe, azukre eta gatz askoko elikagaien eskaintza mugatuz».

Sukalde zentralizatuaren ereduak larriki oztopatzen du lege-agindu hori betetzea:

personal, que abarcarán como mínimo las siguientes áreas:

- *Atención, cuidado y vigilancia del alumnado.*
- *Higiene y seguridad alimentaria, especialmente sistema de alertas alimentarias, Buenas Prácticas de Manipulación, Plan de Limpieza y Desinfección, Alimentación Saludable...*
- *Plan medioambiental de la empresa, especialmente gestión de residuos en el centro.*
- *Capacitación lingüística de acuerdo a lo establecido en las condiciones especiales de ejecución.*
- *Seguridad y salud de los trabajadores para la prevención de riesgos derivados del trabajo.*
- *Cualquier otro aspecto relacionado con sus funciones.*

Se omite cualquier formación específica en acompañamiento educativo, hábitos saludables o desarrollo pedagógico. Este desfase entre la normativa y la práctica contractual revela una **grave negligencia en la obligación del Departamento de Educación de asegurar el cumplimiento íntegro de la legislación aplicable**, lo que se traduce en un servicio de comedor escolar desprovisto de la calidad pedagógica y de la atención adecuada que exige la ley.

A su vez, la Ley 17/2011, de 5 de julio, de seguridad alimentaria y nutrición, establece en su artículo 40 que «**los comedores escolares (...) ofrecerán menús que se adapten a las necesidades nutricionales de los alumnos, incorporando alimentos de proximidad y temporada** y limitando la oferta de alimentos con alto contenido en grasas, azúcares y sal».

El modelo de cocina centralizada obstaculiza gravemente el cumplimiento de este mandato legal:

- Industria-logistikak eta garraio masiboak zaildu egiten dute elikagaien kalitate organoleptikoa bermatzea eta murriztu egiten dute ikasleek menuak onartzea.
- Ikastetxe askotarako loteak estandarizatzeak nabarmen mugatzen du menuak eskola-komunitate bakoitzaren premia zehatzetara egokitzeko gaitasuna.
- Eskala handian esleitutako kontratuek kostuetan eragiten duten presioak produktu freskoak, sasoikoak eta hurbilekoak sistematikoki sartzea eragozten du.

Baldintzatzaile horiek direla eta, ezinezkoa da elikadura osasungarri eta jasangarriaren arloko arau-helburuak benetan eta eraginkortasunez betetzea.

Hezkuntza-komunitateak etengabe adierazi izan du agintari eskudunen aurrean eskolako menuen kalitate eskasa, ikuspegi nutrizional zein organoleptikotik. Egiaztatu da ikasleek ez dutela onartzen zerbitzatutako janaria, ez dutela behar bezala jaten eta kasu askotan etxera gose sentsazioarekin itzultzen direla. Egoera hori ez da puntuala eta egungo kudeaketa-ereduaren egiturazko gabezia islatzen du, sukalde zentralizatuan oinarritua eta frogatu da ez dela nahikoa ikasleen benetako beharretara egokitutako elikadura-zerbitzu duina bermatzeko. Emaizari gabeko aldarrikapen horri esker 2025eko ekainean plataforma bat sortu zen, **Gasteizko eskola publikoetako familia elkarteek osatua. Plataforma honetan gutxienez 17 familia elkarte daude** eta honen helburua da eskola-jantokien kudeaketa ereduak aldatzea eta ikastetxeetan bertan sukaldeak ezartzea, hezkuntza- eta elikadura-kalitatea hobetzeko.

Catering zentralizatuaren bidezko egungo kudeaketa ereduak erakutsi du ezin dituela bete EAEko eskola-jantokiek dituzten legezko betebeharrak, ez hezkuntza-dimentsioari

- La logística industrial y el transporte masivo dificulta garantizar la calidad organoléptica de los alimentos y reducen la aceptación de los menús por parte del alumnado.
- La estandarización de lotes para numerosos centros limita sustancialmente la capacidad de adaptar menús a las necesidades concretas de cada comunidad escolar.
- La presión por costes en contratos adjudicados a gran escala impide la incorporación sistemática de productos frescos, de temporada y de proximidad.

Este conjunto de condicionantes hace inalcanzable el cumplimiento real y efectivo de los objetivos normativos en materia de alimentación saludable y sostenible.

La comunidad educativa ha venido manifestando de forma continuada ante las autoridades competentes la baja calidad de los menús escolares, tanto desde el punto de vista nutricional como organoléptico. Se constata que el alumnado no acepta la comida servida, no come adecuadamente y, en muchos casos, regresa a casa con sensación de hambre. Esta situación, lejos de ser puntual, refleja una deficiencia estructural del modelo de gestión actual, basado en cocina centralizada, que ha demostrado ser insuficiente para garantizar un servicio alimentario digno y adaptado a las necesidades reales del alumnado. Esta reivindicación infructuosa ha propiciado la creación, en junio de 2025, de una **plataforma compuesta por Asociaciones de Familias de las escuelas públicas de la ciudad de Vitoria-Gasteiz, en la que están involucradas al menos 17 asociaciones**, cuyo objetivo es impulsar un cambio de modelo de gestión de los comedores escolares y lograr la implantación de cocinas in situ en los colegios.

El modelo actual de gestión mediante catering centralizado ha demostrado su incapacidad de satisfacer las obligaciones legales que rigen los comedores escolares en Euskadi, ni en su

dagokionez, ez elikadura- eta osasun-dimentsioari dagokionez.

AZPIEGITURA PARTEKATUAREN PROPOSAMENA

Egoera horri erantzuteko, organo honek proposatzen du sukalde profesional bat eraikitzea in situ San Martin HLHIIn, San Martin HLHI ikastetxeari eta Abendaño Ikastolari zerbitzu bateratua emateko gaitasun nahikoarekin, Gasteizko hezkuntza-eremu berean. Aukera hori alternatiba bideragarri gisa planteatzen da, baliabide publikoak optimizatzeko, inbertsioaren eraginkortasuna hobetzeko eta bi hezkuntza-komunitateetan kalitate handiagoko eskola-jantokiko zerbitzua bermatzeko. Hala ere, jasota geratzen da Hezkuntza Sailak beste kokapen batzuk baloratu eta proposatu ahal izango dituela, helburu bera lortzeko egokiagotzat edo oinarrituagotzat jotzen dituenak, betiere araudia betetzen dela eta eskola-jantokia ikastetxeetako bizitza pedagogikoan erabat integratzen dela bermatzen badute.

Instalazioa egunero 636 jankide ingururi (262 San Martín HLHIkoak eta 374 Abendaño Ikastolakoak) arreta emateko dimentsionatu beharko da, 2025-2026 ikasturterako datuen arabera. Kokapen-proposamena jasotzen duen planoaren erantsi da.

Proposamen hau EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES eta PV-ETP talde parlamentarioek izenpetutako transakzio-zuzenketa den **2019ko urriaren 24ko Eusko Legebiltzarraren Akordioarekin** bat dator, zeinak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dion ziurtatu dezala jantokien eraikitzea hala eskatzen duten zentroetan, hauek erabaki ahal izateko zein jantoki-zerbitzu eredu nahi duten. Honek indartu egiten du eskaera honen bideragarritasun instituzionala eta juridikoa.

BALIOZTATUTAKO INBERTSIO-AURREKONTUA

Kalkulatzen da proiektua gauzatzeko 200.000 euro inguruko inbertsioa egin beharko dela,

dimensión educativa ni en su dimensión alimentaria y sanitaria.

PROPUESTA DE INFRAESTRUCTURA COMPARTIDA

Para dar respuesta a esta situación, este Órgano propone la construcción de una cocina profesional in situ en el CEIP San Martín, con capacidad suficiente para dar servicio conjunto tanto al propio centro CEIP San Martín como a la Ikastola Abendaño, ubicados en la misma área educativa de Vitoria-Gasteiz. Esta opción se plantea como una alternativa viable que permitiría optimizar recursos públicos, mejorar la eficiencia de la inversión y garantizar un servicio de comedor escolar de mayor calidad en ambas comunidades educativas. No obstante, se deja constancia de que el Departamento de Educación podrá valorar y proponer otras ubicaciones que considere más adecuadas o fundamentadas para alcanzar el mismo objetivo, siempre que garanticen el cumplimiento de la normativa y la plena integración del comedor escolar en la vida pedagógica de los centros.

La instalación deberá dimensionarse para atender aproximadamente a un total de 636 comensales diarios (262 del CEIP San Martín y 374 de la Ikastola Abendaño) según datos para el curso escolar 2025-2026. Se adjunta como anexo un plano con la propuesta de ubicación.

Esta propuesta se alinea con el **Acuerdo del Parlamento Vasco de 24 de octubre de 2019**, referencia 28/2019, enmienda transaccional suscrita por los grupos parlamentarios EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES y PV-ETP, en el que el Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a asegurar la construcción de cocinas en aquellos centros que lo soliciten, con el fin de que dichos centros puedan decidir qué tipo de servicio de comedor quieren tener, lo que refuerza la viabilidad institucional y jurídica de la presente solicitud.

PRESUPUESTO ESTIMADO DE INVERSIÓN

Se estima que la ejecución del proyecto requerirá una **inversión aproximada de 200.000**

proiektu teknikoa, obra zibila, instalazioak eta sukaldeko eta jantokiko ekipamendu profesionala barne. Zenbateko hori orientagarria da eta Hezkuntza Sailak 2026rako EAEko Aurrekontu Orokorretan dagokion partida sar dezan formulatzen da, hargatik eragotzi gabe behin betiko eraikuntza-proiektua egitea eta ondoren obraren lizitazio publikoa egitea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen arabera.

Hala ere, **subsidiarioki eta 2026an izapidetzea bultzatzeko**, obrak gauzatzeko proiektua idazteko 2026rako EAEko Aurrekontu Orokorretan inbertsioetarako aurreikusitako kreditutik gutxienez **20.000 euro bideratzea** eskatzen da.

ESKATZEN DUT

Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailari:

- 2026rako EAEko Aurrekontu Orokorretan sartu dezala **proposatutako sukaldea in situ eraikitzeko behar den diru-hornidura**. Subsidiarioki, 2026ko ekitaldian 20.000 euro erabil ditzala exekuzio-proiektua idazteko.
- Azpiegitura gauzatu ondoren, egungo sukalde-eredu zentralizatutik zuzeneko kudeaketa- **eredurako trantsizioa ezarri dezala, in situ sukaldearekin**.
- **Ikastetxeko hezkuntza-proiektuan eskola-jantokiko zerbitzua erabat integratzen** dela bermatzeko behar diren neurriak har ditzala. Horretarako, beharrezkoa da prestakuntza pedagogiko espezifikoaren duten langile kualifikatuak izatea, baita langileak dimentsionatzeko egungo irizpideak berrikustea ere, ikasleen benetako beharretara egokitutako arreta ratioak bermatzeko.
- Egin dezala **trantsizio plan bat**, hezkuntzaren, elikagaien eta segurtasunaren arloko legezko

euros, incluyendo la redacción del proyecto técnico, la obra civil, las instalaciones y el equipamiento profesional de cocina y comedor. Esta cifra tiene carácter orientativo y se formula con la finalidad de que el Departamento de Educación incluya en los Presupuestos Generales de la CAPV para 2026 la partida correspondiente, sin perjuicio de la elaboración del proyecto constructivo definitivo y de la posterior licitación pública de la obra conforme a la Ley 9/2017, de Contratos del Sector Público.

No obstante, **con carácter subsidiario y con objeto de impulsar la tramitación en el año 2026, se solicita destinar al menos 20.000 euros** del crédito previsto para inversiones en los Presupuestos Generales de la CAPV para 2026 para la redacción del proyecto de ejecución de las obras.

SOLICITA

Que el Departamento de Educación del Gobierno Vasco:

- Incluya en los Presupuestos Generales de la CAPV para 2026 la **dotación necesaria para la construcción de la cocina in situ** propuesta. Con carácter subsidiario, que destine 20.000 euros en el ejercicio 2026 a la redacción del proyecto de ejecución.
- Establezca, una vez ejecutada la infraestructura, la transición del actual modelo de cocina centralizada a un **modelo de gestión directa con cocina in situ**.
- Adopte las medidas necesarias para garantizar la **plena integración del servicio de comedor escolar en el proyecto educativo del centro**, lo que exige la dotación de personal cualificado y con formación pedagógica específica, así como una revisión de los actuales criterios de dimensionamiento del personal, de forma que se aseguren ratios de atención adecuados a las necesidades reales del alumnado.

betebeharrak benetan betetzen direla bermatzeko.

Jasota geratzen da San Martin HLHiko Ordezkaritza Organo Gorenak erabaki hori baldintza berberetan bozkatu zuela urriaren 27an eta lankidetzako ekimen bat egon zela eskola-jantokiaren proiektu hau sustatzeko.

Idazki hau Espainiako Konstituzioaren 29. artikulua eta Eskaera Eskubidea arautzen duen azaroaren 12ko 4/2001 Lege Organikoaren babesean egin da. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 24. artikuluen arabera, Hezkuntza Sailari dagokio eskabide honi berariazko ebazpena ematea eta erantzun arrazoitua ematea, lege ezarritako epeetan, hezkuntza-komunitatearen eskubideak bermatzeko eta eskola-jantokiko zerbitzu publikoa behar bezala emateko betebeharrak instituzionala baliatuz.

- Articule un **plan de transición** que garantice el cumplimiento efectivo de las obligaciones legales en materia educativa, alimentaria y de seguridad.

Se hace constar que el Órgano Máximo de Representación del CEIP San Martín sometió este acuerdo a votación el 27 de octubre en los mismos términos, existiendo una iniciativa conjunta y colaborativa para el impulso del presente proyecto de comedor escolar.

El presente escrito se formula al amparo del artículo 29 de la Constitución Española y de la Ley Orgánica 4/2001, de 12 de noviembre, reguladora del Derecho de Petición. De conformidad con los artículos 21 y 24 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, corresponde al Departamento de Educación dictar resolución expresa y dar respuesta motivada a la presente solicitud en los plazos legalmente establecidos, en ejercicio de su obligación institucional de garantizar los derechos de la comunidad educativa y la adecuada prestación del servicio público de comedor escolar.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 11a

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de noviembre de 2025

IFEko presidentea/ Presidente/a del AFA



MAIDER BELLOSO OREJA

Abendaño ikastola



beheko solairua / planta baja
banaketa / distribución

proiektuaren deskribapena/descripción del proyecto
010429 C.E.I.P. San Martín H. L. H. I.
c/ adriano VI kalea, z/g. 01008 vitoria-gasteiz. araba

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Edukaziozko Departamentua
c/ San Pedro, s/n. 48. 00080 Vitoria-Gasteiz
945.20.20.00 y 945.20.40.00

EUSKO JAURLARITZA
Euzkadiako Lehendakaria
Bar. Pardo de Gueiza, 11. 48. 00080 Vitoria-Gasteiz
945.20.20.00 y 945.20.40.00